Euskel Etala

EUZKADI GUSTIKO IZPARRAK URRUTIZKIÑEZ TA BIDAIZ IDAZKIYAK KIRIKIÑO'RI

EUSKEL IXENAK

GAZTEIZ'EN.—"Igone Edurne", Ortiz-Lafuente'tar Martin'en alabari.

ZUMAYA-OIKINA'N.—"Miren Koldobike", Erkizia'tar Augustin'en alabari.

IURRE'N. — "Deunoro", Totorika'tar Antselma eta Auzmendi'tar Miren'en semiari; aitama bitxiak ixanik umearen ixeko-osaba Zuazo'tar Jone eta Auzmendi'ta: Karla.

Zorijonak ume ta guraso ta aitama bitxijeri. Olantxe egiten dabe euzkotar zintzuak. Gora zeuok!

Urten bediz emakumiak, baña euren ixakerea galdu barik

Emakume abertzale artian agertzen dan epeltasun ori antziñatik zergati askok dakarren ondorengua dala niñuan nik neure lengo idazkijan. Eztira euzkotarren artian bakarrik emakumiak kikillak ixan euren arazuen alde urteteko, ludi osuan ixan dira bardiñak. Egiya! Or emakume batuk azaldu ziran azartsu, didarka, zeozer eurek be laterrijetan al-etela, baña ze barregarri, ze itxusi, ze buruge urten ziran!

Ez al-dozubez ikusi ortik iñoiz Doixtar emakume itxusi, arpegi gorri-gorridunak, ardaoz beteta ba-lebiltz lez, oski ikaragarrijak oñetan, txakur zikin bat albuan? Gauza itxusiagorik ezin! Au lakuak zirran len etxeko arazuetatik urteten ziran emakumiak. Eurekin itzketan nor asi? Ixan be etziran emakume oneik gixonen goguak eurenganatzeko egiñak. Euren burubakokeriz emakume oneik egin dabe emakume guztijen aurka.

Baña orain emakumiak beste bidetik doaz. Orain euren izakera biguna utzi barik bikain ekiten dabe arazo guztijetan. Emakume sudur-gorri arein alditik "Lady Astor" emakume trebe, jakintsu edertasun-zale, atsegingarri alditara ze bardigetasuna! Gixonak bezin jakintsu, baña euren izakerea galdu barik. "Baña (TENE'k esango dau) guk eztogu emakume orreik sartzen diran arazuetan sartzeko usterik, geuk euzko-gogua edertzen, gaintzen guaz. Origaitik eskatzen dogu gixonen laguntasuna".

Nik orain arte oiñodana be eztua zubentzat ori bai-dakixube ondo. Len ortik azaldu ixan diran emakume zirzil orreik gaitzik geyen egin ixan dautzube emakume guztijei arazo askotarako. Baña zubek dakartzuben arazo ortarako eztot nik uste gixonen aldetik eragozpenik arkituko dozubenik.

Bitariko emakumiak arkituko dabez ba oneik euren bidietan. Ezkonduak eta ezkongeyak. Ezkonduak zeregin bikaña baidabe euzko-gogua edertzen, euren semiak gaitzen! Grako senidien amak zortzi seme euki ixan baleuz be zortzirak gudaraliak, ekin-zaliak ixango ziran ziur. Eta zeure ustez TENE'k diñuan bultza ori ixango dabe emakume oneik euren senarekandik euzkera alde, euzko-ekandu alde ta abar.

Ta ezkongeyak noren bultzea biar dabe barriz? Oneik azkatasun osua ixaten dabe geyenian euren gurasuekandik. Baña zaletasuna? Euretariko askoi erromerijak ugari, jolasak ugari irakatsi ta ortara, lai, pozik eurrez pilloka juango dira. Oneik barriz ezjakiñak dira ta ezer ezin dabe, ezertarako eztira.

Nora jo, ba? Arrese olerkarijak diño lorerik bikañenak, usain gozuena dabenak lazterrik ezkutunian egoten dirala Egiya ixan be. Geyes-geyena al-daben emakumiak lotsatijenak, ezkutuenian dagozanak ixaten dira. Ta ez euren gurasuen eragozpena dabelako gauza onetarako; eurek apalak, ezkutuan egotekuak diralako baño. Nok eruan biar dautze ba orri euren goguak piztuteko biar daben garra? Euren arteko emakumiak. Baña eguneroko ekiña, betiko lana biar da onelako emakumiak ataratzeko.

Azkenik, Nok dau emakumien apaltasunaren errua? Bijak, gixonak zeozer, emakumiak beste zeozer.

T. T. T.

II Iraingе-Bidezkundia

Oin amabost egun dirala, entzun neban Bilbo'ko Berrio-Otxoa-Ikastetxeko mutiko ikasliak euren Zaindari Berrio-Otxoa'tar Balendin Zorundunari iraingе-bidezkunde bat egiteko asmotan ebezala. Entzun, neban izpar au, igaro dan eguenian egiztau zan.

Amaiketako bultzijan oneratu ziran: irakasle, ikasle ta euron gurasuen artian zo'etik gora ziran. Baita be eurokin etorrita agurtu genduzan Bilbo'ko Udal-Txirostxe'ko artezkarija dan Exuperio Anai gurgarrija, Begoña'ko karmeldar lekaidetxeko Aba parantzetar bat eta Bilbo'ko Sendi Deunego (Sagrada Familia?) jaupari (canellán) jauna.

Eurori itxaroten geltokijan egozan Izturategi txaunburu jauna beste jaupari batzukaz, Parantzetar lekaidetxeko nagusi jauna beste bertoko bi edo iru lekaide ta ikasle gastetxuekin eta eskola-ume guztiguztijak, mutiko ta neskatuak.

Artez-artez ta txaunbiraz Elixara zuzendu ziran, euren ikastetxeko Berrio-Otxoa'ren ikurrin ederra aurrian ebela. Elixan-sartziaz-batera abesti polit eder bat abestu eutsoen euren Zaindari altsuari. Ondoren Jaupa ixilla: Augustindar lekaide parantzetarren nagusi, Aita Fortunato'k egin eban. Jaupa-bitartian beste laterazko abestitxo batzuek be abestu ebezen. Gorpuzkin deunari mun egin eta parantzetar lekaidetxera juan ziran. Aonek bertan daben Lourdes'ko Ama Miren garbijaren leiza-aurrian (grutan) Berari abesti samur batzuek abestu ondoren bazkarija lekaidetxian bertan. Bazkalduta gero "foot-ball" joko aldi gogor bi. ¡Ze ederto jokatu eben! ¡Arek eben poza!

Bostetan txadon nagusira biurtu ziran agurtza deuna erregau, Miren-illeko otoitzak egin eta euren Zaindari laztan maitiari agur egiten 6 ta 1/2-jetako bultzijan barriro Bilbo'ra biurtzeko.

Bultzijak urten baño len eta euren ¡Gora! artian, gure txaunburu jaun maitiak Berrio-Otxoa'ren irurrun-idaztitxuak eta beste domiña asko ta asko, esku zabalez, emon eutsezan. Etziran asarre biurtu: baña, zoritxarrez, eguraldijak ezeutzen lagundu. Goxian ziri-miri apur bat asi zan, baña, bein ordubijak inguruan asi ta gaberagiño garratz ta gogor jarraitu eban. Tamala benetan.

Agur gaste maitiok. Eskarrik-asko zeuen artezkari ta zuzentzalle Octabiano Anayari ta zuen irakasle arduratsueri.

Etorri ostera be. Beste bat arte.

TXADON-ONDO

Elorrijo-Orrilla-26'gn.

Idazki-Ereduak

Jerusalen-osterean semiak amari

TIBERIADES.—GALILEA

Amatxo maite maitia: Atzo illuntzian eldu nintzan Galileako uri ospatsu onetara; kanpotik begiratuta ederra ta polita da, baña barrutik, zakarra, zikiña; kaliak okerrak daukoz, gañetik trapu zarrez estalduta,eta usain edo sunde gogaikarrija sentietan da alde gustijetan. ¿Zek emoten dau usain gogaikarri au? Danok jakin gura genduan eta itandu geuntsen lekaidiei (frailliei) eta esan euskuen zala ganbelu-pekotzagaz sua egiten dabelako. Emen ez dago egurrik, ez ikatzik, ez beste sugeirik, eta gambelu-pekotzagaz egin biar, eta onek emoten dau sunde gogaikarrija arrotz edo estrangeruentzako, baña ez eurentzako ba oituta dagoz onetara.

Ostatutzat daukoguz zapi zuridun txabolak, gudarijen antzeko "tienda de campaña" eta euretan jan, lo, garbitu eta beste arazu gustijak egin biar doguz. Amabi gagoz txosna baten, danok euskaldunak; tramankulu guatijak itxi eta abestu dogu "Gernika'ko Arbola" kapela zurijak kenduta; gure zaratiak biztu dauz beste txabolakuak be eta dana da abestutia, zaratia, iji ta uju eta santsua.

Ikuslak eta entzulak arrituta dagoz, ez dakije ze ele dan, baña eskua luzatu eta "baxis" esaten bakije.

Adar-soñuagaz ta txiliñaz deituten deuskue Elexara, eta au guaz erreskada luze bitan Jaungoikuari eskerrak emotera, danok osasun orian eldu garialako, abestu dogu "Te Deum", gero agurtza deuna, Jauna agirijan dala, eta beste baga urten gendua, beruak ito biar geduzalako. Etxeruntz, edo txabolaruntz, lagundu euskuen lekaidiak argijakaz, eta beste "mukiz" deritxonak lasto-eskutiaren antzeko argijakaz, ba erri onetan ez da ikusten argirik, petrolijua eta tximist-argija zer dan be ez dakije ta.

Torre me, luze eta biribil baten, kanpotik burdiñazko balkoia daukonak, ikusi genduan gizon bat "Santos" deritxona, notinai otoira deituten "Hel Alá zalat he Alá helan" ziñuan, erdu danok otoi egitera, erdu danok osasunagaitik. Guk ez geuntsan jaramonik egin, ba apal ordua eta geure zapi zuridun txaboletara juan giñian.

Apari ederra emon euskuen, baña muskitu zatarrak ez euskuen baketan itzi, geuk baño gose geyago euken, ba platera petetan yakun beingo baten eta kollariagaz atera biar ixaten genduzan. Apal-ostian iñok ezeukan oera juateko gogorik, ba bero ikaragarrija zan ta gañera mustkituak gestu egozan gu zirikatzeko; auxegaitik gaurik geyena igaro genduann itxarturik barriketan, fumetan barrez eta baita otoi egiten.

Bijaramon goixian. Maronitan Elexan mezia emon genduan iru edo lau abade euskaldunek, eta gero itxasora autsak kenduaz bañu bat artzera. Elexa onetan ikusi genduan, Jauna ogi eta ardu irudipian emoten.

Apur bat geyago luzatuko nintzake, baña lagunak daukodaz itxaroten. Agur ba, maite zaitu zeure seme.

JON-EK.

Izparrak bidaiz

Ondarroa

Datorren illean Lourdes'era egingo dan Bidezkunderako, amazortzi abertzalek aurrenengotarikuak uri onetan emon ebela euren ixen-abixena juateko entsun dot; euron artian Uri-Buru-Batzarreko bik, (lendakarija bata eta itundarija bestia) lau ziñegotzi ixanikuak eta beste bost Batzokiko-Bazkintza-Artezkaritzan egondakuak... Beste alderdikorik ba-pe danik bat edo.

Eurok ixenak emon ebazanian, egija da, ondiño ez-ekijen auteskundiak noix jausiko ziran, baña entsun dodanez illa onen ogeta-bosterarte gura ebanak eta ezer galdu barik atseratzeko-be emon ei-eutzen eskubidia, eta illa onen ogeta bostan aurretik danok jakin dabe zelan datorkuzan auteskundiok Bagillan amarrian edo Bidezkunde ori Lourdes'en egon biar daben egunian, da ikusirik gañera aspaldikorik garrantzirik andijenetarikuak dirala, zeatik egun orretan autuko diran Aldunak atondu eta barriztau biar dabe Ogasun-Egikunia edo Konzierto Ekonomikua eta danok dakigu Euzkadi maitatu eta aldeztuko daben Aldunak edo Ebro'tik aruntz'koa maitatzen dabenak ixan alde andija dagona arazu orretan, eta ixenik atseratu dabenik ez-da-egon, baña ez dot uste abertzalerik ausartuko danik egun orretan iñora juaten, zeatik Buruak ez-badagoz auteskundietan aurrian Jelbatzari Ondarroan oker andijak eta buruko-miñ andija neure ustez sortuko leikijoz, eta gogoratu gaitezen ondo, arrantzale abertzaliak aspaldiko auteskundietan premiña-une andijetan aurkitu arren zelako erakutzi ederrak emon deuzkubezan laga arrantzu danak eta etxian geratzen, bestetsutan Montaña aldetik arrantsuak laga eta etxeratzen, eta geijago ondiño, etxian jatekorik ez-da ogerleko pillua agindu arren ez-zaltzen; baita be gogoratu gaitezen emengo abertzalerik geijenak irakurribako abertzaletazuna daukiela, batzuk ez-dakijelako, eta beste askok astirik eukiten ez-dabelako euren itxasoko bixi-bidiatik, eta jakiña, irakurri barik gatxa da ikasten, ikasi barik ez da ezagutzen da ezagutu barik gatxago maitatzen, alan ba, emengo abertzaletazun geijena da, aboz entzundakua eta egitez edo obraz ikusitakua, eta olako abertzaliai euren belarrija eta begija asetzen ez-badeutse agintarijak edo aurrekuak euren esanak egiztuten egipenekaz erakutzi ederrak agerturik, ¡Agur jaunak!

Gañera ondiño gordiñ-gordiña daukogu zoritxarrez geure arteko matrakia eta bera dala eta ez-dala biar ez-diran gauza asko entzun dira eta zijo orrek oztuta aurrekuen lotsa apur bat galdu da aspaldijan, eta aurrekuok geure egipenakaz ekarri biar dogu lotsa ori biar dan bidera, len baño iñor otzago ipinteko biderik emon barik, bada bakotxan tokijan aurkitzen ez-bagara auteskundietan zerbait gariapok, ez-dakit zer gertau leiken ortik, beintzat emen geratzen garan beste batsuk be, aizkora bategaz ebakita lez lurreratuak ixango gara, eta lanik eziñ egiñik etxian sartuta egon biarko dogu, traidore alu batsuk gariala entzun nai-ez-badogu.

Benturaz esango dau baten-batek Bidezkunde ori gogo-aldezkoa dala eta Gu Euzkadirentzat, eta Euzkadi Jaungoikuarentzat diñogun lez, arira datorrena dala, baña jakiñ geinke abertzale danok ori eziñ geinkela auznartu eta gitxiago irakurri bakuak.

Arren ba, aserreko biderik ez-daigun sortu lenak naikua dira-ta, eta alik ondoen betetera aberrijan premiñak egin daiguzan, geuk nai doguzan erara gauzak artu barik, Jaungoikuari eta Aberrijari jaokozan lez baño, zeatik bakotxak norbere gogua-aldez bakarrik egitia ez-dakit Jaungoikuaren gurarija betetia dan edo ez, beintzat gure Jaun eta Jaungoikua eta beste ziñepak lagun-urkoan gogoa'tzat bizija emon eben, da esatia, bestiekaitik, eta nik esan neiketsuena da, gure alderdija ixan ez-palitx gaur daukogun uzkurtzaletasuna ez-gebala euzkotar askok eukiko (neuk ez-beintzat) eta parkamenak jarizteko autu biar da eguna lagun urkoai okerrik etorriko ez-jakona; obeto esateko, Bidezkunde orren bidez amazortzi'k euren gogoantzat jarizten dabez parkamenak, baña juango balitxakez Bidezkunde orretara auteskunde egunian, ixentaurikuok, zijo au dala-ta, eurak diran baño askoz geijagok abertzale ixateri laga lekixue, eta onen uzkurtzaletasuna, abertzaletasunagaz batera otzituko litxake, eta amazortzi gogoentzat irabazi leikezan parkamenak andijak ixan arren, ortik atzeratu leikezan abertzalian otzitazunan kaltiak uzkurzaletasunian gogo askontzako andijagotzat daukodaz, eta ondo da Lourdes'ko Amagana juatia, baña okerrik iñontzat etorri ez-leiken eguna aukeratuta, al-dozue-ta.

A'TAR JA.

Ermu

Agur Kirikiño. Gaur nator lenengo aldiz idazkortza artuta zerbait idazteko asmoz, eta zeuk ontzat artzen ba'dozu, argitaldu, eta bestela bota otsarara. (1)

"URKO"-RI.—Illa onen 17'an izparringi onetan imini euan idazkijak akulukada gogorra emon jotsek emengo abertzale batzueri; baña ez estutu orregaitxik, neuk be lagurdukuat eta; askok laga jotsek ik esaten euan dantza naskagarri eta loi zikiñari; asko poztutzen nok ain erakutsi ederra emon dokalako gure abertzalien artian; jarraitxu ba aurrera or dantza loi orretan ikusten dokanari akulukadia bildur barik emoten.

Igaro dan igandeko izparringijan idatzi euana irakurrita, banajoiak beste zerbait esatera. Ostikada gogorra jaurtzen deutsek emengo karlista-alfonsino-ligueruei "viva España" debaldeko didarrak eitxen ditxuelako txapel-okerren aurrian; jakiña dok ba ori, gure aurrian deitxen dabenian ordaña emoten jotseguk eta, aren aurrian deitxu biar "españarrak" dirala esateko be. Ori emen deitxu, baña gudaritzako zozkeran barrurako urteten bajotsek? arrantza ein, da ankan zaldar bat bajaukiek axe be erakutsi azke geratziarren. Onek be ataiko zakurrena jaukek, atian zaunka asko, ta beste leku batera doiazanian belarrijak eta burua apalik ibili.

"ERMU-ZALE"-RI.—Ordua euan esnatzeko, neskatilla gustijak or ibili ditxuk esaten noz urten biar ete dogun mendi aldera eurak emondako ikurrin ederra ta tanbolin-soñua artuta; pozik irakurri juek igandeko izparringijan deija, baita neuk bere. Ia ba neskatilla ta mutillak, gertatzen asi pardelak juan gaitian mendiko axe garbijak artzera osasuntsuak izateko.

Dei egiten deutsat izparringi ontatik "Uriguen" oleskari gastiari, gertau dedilla geugaz juateko zabalgunde piskat egin daigun auteskundietarako Markina erki-aldian. ¿Badakit, Uriguen, oin urte bi inguru zelako zabalgundia egin euan? nirigogoratzen jatak ba zelan baserritar batzuek adurra darixuela egon ziran ire olerki eztitsuak eta mamintsuak entzuten.

Ia ba, danok igandian Deun Eupeme tontorrera, bat be gelditu barik.

ELORRETA

(1) Au beintzat, otsarara eztua; ia bigarrena botaizu, ta ikusiku; baña susmua eiten yat axe be eztala juango.—KIRIKIÑO.

Sara (Laburdi)

SALVAT TEILLERY

Atzo ereman dute hobira Itsatsuko jaun auz'apheza, Salvat Teillery, Laburdi'ko egiazko eskualdunetarik bat. Una, gutiz bertzerik, jaun Henri Dutournier, Sara'ko auz'aphezak, hobiaren aintzinean, erran dituen solasak:

"Jaun-andreak: Auzo herrietako adizkide guzien izenean, eginbide dolu min batekin, erraiten diot gure adizkide eta lagun Salvat maiteari, gure azkeneko agurra. Ez ginuen uste eritasunak horren laster bentzutuko zuela, zeren haundi baitziren oraino gure bijotseko usteak, bainan gaitza izatu da harren indarren garai. Gaixo Salvat! Orai duela zonbeit egun, auz'aphezak egiten dugun ilabete guziko biltzarrean, noiz eta ere uste baiginuen gure tartean agertuko zela, aditu ginuen berria heri zela, eta arras heri. Sobera egia zen berri hori, betikotz bere azken egoitzara etorria denaz geroz, bere ahiden maitasunetik urrun. Zuek ere, Itsatsoar adizkideak, buruzagi bat galtzen duzue biotzez maite zintuztenak, zeren baizakien, ordainez, zuek ere maite zinutela.

Musde Etxegaraien denboratik huna, erran nahi baitu aspaldiko urthetan, Itsatsu'ko auz'aphez izendatua izan zen, herri guziaren izenean eta harren onetan. Orai duela zonbeit urthe, izan dugun gudu harren ondotik, nahi izan zuen bertzeri bere lekhua utzi, erranez egiten ahal zituen ongi guziak bere herriarentzat egin zituela, eta nahi zukeila bere azkeneko egunak bakhean iragan. Bainan bertzela iduritu zitzaioteu bere adizkideri, eta zahar eta gastek, denek bat egin zuten jaun horri berriz ere auz'aphez izendatzeko. Gutiak izan dire bere herritarrez hura bezein maitatuko gizonik! harren errana beti zen funtsezkoa, bere eginbide guzietan xuxena, eta guziz gainetik, bere herriaren onetan jeusik ez zitzaion sobera, zabilarik beti nun edo zertan atsegin egin beharrez. Funtsez eskualduna zen! Ez zituen xoilki biotzean idukitzen bere sinesteak eta eskualdunen azturak, bainan ahal zuen guzian lora eta karsuki zituen aipatzen. Zonbat aldiz ez dugu ikusi gure bilkuretan, noiz eta ere edoi zonbeit altxatzen zen gure tartean, xutik jartzen bere tokian, eta solas zuzenbideko batez, biotzaren erditik barren lañoki zuen erraiten, nun denek aitortzen baiginuen horren xuxentasuna, eta denak baigintuen bakhearazten.

Guziz gainetik zen bere sinesteari jarraikia, bainan zen edadura haundikoa, eta gizonari xoilki galde egiten ziona zen, bere adizkidetasunean leyal eta xuxen izaiten. Bere gogoan gorena zamazkanak zituen Eskual-Herri maitearen beharrak funtsez aditzen eta laguntzen zituenak. Arimaz eta gorphutzez zen eskualdunen artean zinez eskualdun!

Herri huntan eta auzo herrietan gu denek pairatzen dugun dolu minek agian ixturan dute Andere Teillery'ren biotza barnaki damutu duen zauria.

Eta zu, gaixo Salvat, adizkide maite eta osoki zintzoa, gehiago lur huntan ikhusi behar ez dugun laguna, egizu bakhean zure azkeneko loa, eta ikhus gure biotzeko oinazea. Guan zare gu ganik, betikoz guan eta nehork ez du beteko zure adizkiden tartean egiten duzun utsa. Burua apalik baititzen dut, gorphutz zaren kaxa hunen aintzinean, eta itz emaiten dauzut zure orhoitzapena ez dela gu ganik behin ere urrunduko, eta guretzat zure izena beti izanen da gizon biozdun leyal eta xuxen baten izena, ezagutuz geroztik beti maitatu duguna. Menderen mende bakhea dela zurekin".

J. G.

Mayatza-22.

IRUÑA

REPARTO DE PREMIOS EN LA NORMAL

A las doce del mediodía del pasado domingo tuvo lugar en el salón de actos de la Escuela Normal de Maestras el reparto de 30 libretas de la Caja de Ahorros de Nabarra a otras tantas alumnas que en aquel centro docente han terminado su carrera.

Se les devuelven en esta forma las cantidades que han ido entregando las alumnas durante el curso de sus estudios.

Presidió, en nombre de la Diputación, el señor Usetxi, y asistieron, entre otras personalidades, los señores Uranga, Babo, Ullibarri y Urkizu por la Caja de Ahorros, y la directora de la Escuela Normal doña María Ana Sanz. Esta y el señor Uranga pronunciaron breves discursos alusivos al acto que se celebraba. Antes de darse por terminada la sesión se sortearon dos libretas encabezadas con 25 pesetas cada una, obsequio de uno de los señores allí presentes.

LOS EMPLEADOS DE BANCA Y BOLSA

A las once de la mañana del domingo se celebró un mitin al que asistieron el noventa por ciento de los empleados de Banca y Bolsa. Hablaron varios oradores procedentes de Madrid, y se acordó estudiar dentro de breve plazo las bases y reglamento de su futuro Sindicato.

ACCIDENTE AUTOMOVILISTA

Entre Lodsa y Mendabia, y debido a una falsa maniobra, han chocado dos auto móviles. Resultaron heridos los señores Esparza, dueño de uno de los vehículos, Pierola y un chauffeur apellidado también Esparza.

Fueron curados de primera intención en Mendabia y trasladados después a sus respectivos domicilios.

LA FIESTA DE LAS ESPIGAS

Con gran pompa y solemnidad se ha celebrado en Corella la fiesta de las Espigas, organizada por la Adoración Nocturna, siguiendo tradicional costumbre.

HALLAZGO MACABRO

Un grupo de obreros que se hallaba trabajando en término municipal de Jesa, ha encontrado enterrados entre escombros un cráneo y una mano humanos.

Del hallazgo se ha dado cuenta al Juzgado correspondiente.

HERIDO DE UNA COZ

En Zia, una caballería dió una coz al vecino de aquel pueblo Juan de Madotz, causándole lesiones de pronóstico reservado.

OTRO ACCIDENTE AUTOMOVILISTA

El automóvil que hace el servicio público entre Calahorra y Lizarra (Estella), al atravesar el puente existente a la entrada del pueblo de Lerín, alcanzó a Aureliano de Gorostieta, causándole diversas lesiones.

HERIDOS EN RIÑA

De Marcilla comunican al Gobierno civil que durante la noche del domingo se suscitaron varias reyertas, resultando heridos varios mozos.

Por el momento se carece de más detalles.

GAZTEIZ

EN EL FRONTON

Ayer contendieron Fernández y Mondragones contra Ulazia y Etxabe, y vencieron éstos, tras una lucha muy reñida.

El gobernador civil, que se hallaba en un palco, al ver que uno de los pelotaris hacía una apuesta, llamó al juez de cancha, para decirle que prohibía que los pelotaris hicieran traviesas.

"LA SOMBRA DE MADIAM"

La representación del drama lírico titulado "La sombra de Madiam", ha sido un éxito grande. Su autor, el señor Pérez Ormazabal, fué llamado a escena, donde recibió entusiastas aplausos.

LOS ALABESES EN MADRID

El día 3 de junio celebrarán los alabeses residentes en Madrid una asamblea, para tratar acerca de la proyectda constitución de la Colonia alabesa en Madrid.

Algadol-eunak eiten ditu
G. MIRET ROSELLO'K
Etxe onek denderuei bakarrik saltzen dautse. Beti daukoz gertu
Sargak, Vichys'ek, Drillek eta Franelak
Landola: Provenza, 273. — BARCELONA

COPIAS
con el aparato
MULTICOPIADOR
"DADO"
fabricación francesa. Se obtienen perfectas.
CIEN A DOSCIENTAS
de un mismo original, que puede hacerse a mano o con cualquier máquina de escribir, sea de cinta o tampón, reproduciendo igualmente dibujos, planos, estados de cuentas, música, etcétera, etcétera.
Multicopista "DADO"
Tamaño comercial.
Plancha de 21 por 31.
60 PESETAS
completamente equipado. Constituye el aparato más limpio, sencillo, práctico, rápido y económico.
Concesionario general:
A. MARTIN MAYOR
Calle del Comercio, número 24, BARCELONA.

Maquinaria frigorífica
Sírvase mencionar este anuncio al escribirnos
"YORK"
PARA FABRICAS DE
HIELO
Instalaciones frigoríficas especiales para
FABRICAS DE CHOCOLATE
HOTELES
CARNICERIAS, PESCADERIAS, etc.
NEVERAS
Amoniaco anhidro aceite incongelable y toda clase de materias para industrias del frío
CENTENARES DE REFERENCIAS EN ESPAÑA

PUIG y Cía. S en C
Suc. de José Vidal Ros
Paseo de S. Juan 100, 102
BARCELONA
6, Fernanflor, 6
MADRID.
AGENTES en ESPAÑA y PORTUGAL de la
YORK MANUFACTURING Co. PA.